

9. FUNTSEZKO JARDUERAK

Esan bezala, gure zerbitzuak edozein pertsonari eskaintzen dizkiogu, baina batez ere etorkinengatik egiten degu hau. Horretaz, uste dugu ezinbestekoa dela euskarazko klaseak eskaintzea gure enpresan eta hau izango da funtsezko jarduera bat.

Euskal Herrian egonda, ezinbestekoa da eskursioetatik batzuk mendira izatea, inguruan mendi asko ditugu eta horrelako jardueratan jendeak hitz egiteko eta beraien artean hobeto ezagutzeko aukera ezin-hobea duela uste dugu, beraz, mendi-bueltak ere maiz egingo ditugu.

Bazkariak ere egingo ditugu, horrela jendeak euskal gastronomiaz gozaten duen bitartean lagun berriak egiteko aukera izango du. Bazkari hauek donostiako jatetsetan egingo ditugu batzuetan, baina leku merkeetan bakarrik egingo ditugu, beste batzuetan sozietateetan egingo ditugu, eta besteetan bokatak hartu eta mendian edo beste leku batzuetan jango ditugu.

Gipuzkoako leku ospetsuetara irteerak egingo ditugu, baita museo eta erakusketa interesgarrietara ere eta pertsona bakoitzak aukeratuko du nora jun.